

ELIZA-TORRE

*Ja gutarik nehor-nehor ez da goititzen
goroldio eta huntzorriz iantzi eliza-torrera,
zein, hoin hoinbertzetan ikhusi dugulakotz,
ez bait dugu ezagutzen abstrahikuntzan baino.*

*Eliza-torre, bere alegia-alarmaz,
hõra xurphailak lèthargorik athera erazten dituen.*

*Hortxe, bada, heldu zitzaikun elhurraren baptismoa
negu-gauaren kharisma ezin aldaratuzkoan.*

*Hortxe, orobat, irakhatsi zeraukun
haize' goiz, arrats ta gauerdikoak
ezen bera bethiere metaphora bidez expressatzen dela.*

*Hala nola hêmerothêkê gurean ikhus bait diteke,
eliza-torre hortan traumatu gintuen ethorkizunaren spe-
rançak.*

*Sperança zein geure metabolismo superiore berberak,
lehen bekhatuan iausi izan ginen baikotz,
behinolako orhoitzapen bihurtarazi bait du.*

*Eliza-torre! Albo batera, skholêa:
neskak nesketara, muthilak muthiletara.
Eliza-torre! Bertze albora, iguzki hõrologioa,
non igerten genduen noiz zethorkeen muskerraren ordua.*

*Eliza-torre, hi ikhusten haugunean,
khlamyda gure bihotzaren ingurukoa erazten zaikun.*

Este poema pertenece al libro EZPONDETAKO PNEUMA
(Espíritu, aliento -pneuma- de las orillas)

Manu Erzilla

TORRE ECLESIAL

*Ya nadie de nosotros sube a la torre eclesial / cubierta de musgo y yedra. / que
por haberla visto tantas y tantas veces / no la conocemos más que en la abstracción. /
Torre eclesial que con su supuesta alarma / saca a las horas de su tibio letargo. / En ella,
pues, nos llegó el bautismo de la nieve / en el carisma inevitable de la noche invernal. /
En ella, asimismo, el viento de la mañana, / de la tarde y de la medianoche, nos enseñó /
que él siempre se expresa mediante metáforas. / Tal como se puede ver en nuestra heme-
roteca, / en esa torre eclesial nos traumatizó la esperanza del futuro, / esperanza que
nuestro metabolismo superior, / tan pronto como caímos en el primer pecado, / la convir-
tió en moneda no reconocida. / Torre eclesial!! A una parte, la escuela: / "los chicos con
los chicos, las chicas con las chicas" / Torre eclesial!! A la otra, el reloj solar, / donde acer-
tábamos cuando iba a llegar la hora del lagarto. / Torre eclesial: cuando te vemos / se
nos desprende la clámida que rodea a nuestro corazón.*